

Mikel Etxezarreta eta Eli Arrillagak gaztategi homologatua jarri dute Urbian, Legazpiko artzain batzuek Txinako haurra ekarri dute eta beste artzain batzuk Suitzara doaz igandean

# Txinatik Aizkorriraino



Juan Jose Aranguren eta Arantxa Segurola, alaba Paula Xinxu besoetan dutela. (ARGAZKIAK: J.M. LÓPEZ)



Montes-eko Patxi Izagirre.



Jesus Mujika soinujoilea bere lioba Josurekin.

## FELIX IBARGUTXI

ORDIZIA. DV. Dozenaka artzain bildu ohi dira Ordizian atzoko egunez. Baita artalde mendigoietan dutenak ere. **Mikel Etxezarreta** eta **Eli Arrillaga** emaztea hantxe ziren atzo, ardiak Urbian utzita. Ez dira nolana hiko artzainak, Urteko Artzainak baizik, lehenengo igandean Artzain Egunean izendatuak eta ohoretuak. Eta badute bereizgarri nabarmen bat: Urbian bertan ere egiten dute gazta. «Gurea da mendialdeko lehenengo gaztategi homologatua. Ez dago horrelakorik ez Aralarren ez Urbasan. Esnea jetzi, eskuz egiten dugu, eta hain zuzen ere horregatik galtzen ari da mendialdeko gaztagintza», adierazi zizuten senar-emazteok.

Jakina denez, Urbiako artzain-txabolek badute argindarrrik, baina hura ez da nahikoa, adibidez, esne-tankeak behar duen hoztasuna sortzeko. Beraz, horrentzako generadore bat erabiltzen dute. Gaztategi homologatu hori aurtengo ekain hasieran inauguratu zuten Mikelek eta Elik. «Jende askok mendialdeko larreen kalitateari nahi du. Horako larreek gustu berezia ematen diote gaztari», zioten. Gazta gehienak ketuak egiten dituzte. Behin pare bat aste dutelarik, gaztak Olaberriko biltegiara jaisten dituzte, eta han kea ematen.

Legazpiko Erraizabal baserriko **Juan Jose Aranguren** eta **Aran-**



Josu Osak txertoak egiten ditu.

**txa Segurola** ere han ziren, gazta saltzen gaztagile txapelidunen saltokietako batean, 1999ko txapelidunak izan baitziren. Bada nobedaderik familia horretan: Txinatik umea ekarri dute, **Paula Xinxu**. «Bigarren ume baterako zaila daukagu, unibertsitate-titulua eskatzen dute eta ez dakit zer gehiago. Uste dugu Olinpladengatik dela, gero arinduko dituzte atzera baldintzak. Umea artzaina izango den? Berak nahi duena izango da. Ez dugu estutuko».

Handik ez oso urrutik, **Pedro Gabiria** eta **Ines Argarate**, Legaz-

tzaiolarik galderak eginez. «Aspaldi Zabalegi nekazari-eskolan jardun nintzen kapataz, eta hantxe zaletu-zloen». Gero Kutxaespazioan hasi nintzen lanean». Atzokoaren antzeko erakustaldiak egin izan ditu Astigarragan, sagar bilketaren inguruan egin ohi den festan, eta bai Iruen ere, Ola sagardotegiko festan. «Txertatzeko, intxaurra da zailena. Kanpo librean behintzat. Koniferak ere zailak dira txertatzen. Errazena, berriz, sagarra eta udatea».

Beste urteetan bezala, Zuhigarrek eta Iraditarrek ekarritako perretxikuekin erakusteta osatu zen. Hauen esan zizkigun **Javier Zuhigar**: «Gorringo asko (amanita caesarea) topatu dugu egunotan. Perretxiku-mota hau haritz amerikarren sailletan etortzen da askotan. Eta gileurdina, berriz, aurten oso gutxi izan da. Orain arte, ugari, zizahoria egon da, malatzean eta ekainean behintzat». Eta ondoo? «Oraintxe hasi da, badirudi onddo-kolpea datorrela, baina barea ere erno dago, eta goseak, eta onddo batzuk janda topatu ditugu».

Eta goiko plazan Ibarriko Montes baserriko **Patxi Izagirre** landare-saltzailearekin egin ginen topo. Bestek beste, pipermingatik da sonatua etxe hori. «Oraingoz pipermingutxi bildu dugu. Kanpoko jendearekin ari gara, bestela jai dago. Bulgaria eta Errumaniako familiak datozkigu. Jende fina da», zioen. ■

## «Etxean eduki genuen 'Elgeta'»

F. I.

Ordizian urteroko kontua izan ohi da Jesusen Jazpurenaren joaldia. Eta jende asko erakartzen du. Badira hamabost urte elkarrekin ari direla Jesus Telleria perkusionista eta Jesus Mujika soinujoilea, eta aurten Josu Fuldain mutikoa elkartu zaie, bigarren horren biloba. «Guk toki askotan jotzen dugu, udaran geratu ere egin gabe ibiltzen gara; neguan ez hainbeste. Ezkontzetan ere aritzen gara», adierazi zizun Jesus Mujikak. «Nik *Elgeta* eta Eleuterio Tapia izan nituen erakusle-esan zizun Mujikak. Larraitzen taberna genuen eta etxean eduki genuen bi hlabete *Elgeta*. Erakusteko ez zuen asko balio, seguituan haserretzen zen. Asko erre-tzen zuen. Igoal, goizeko ordubiak arte egoten zen sukaldian, zigarro egin eta erre. Jan gutxi egiten zuen, edan ere gutxi. Eta jalki, berandu beti».